

NONDIK NORA

Guk aukerea be'geunke gura dogun lekuan bizi izateko, non bizi gurako geunke, udan naiz neguan? Udabarria Paris'en, udea ondartzan edo mendian, negua toki beroan. Ori litzake gure ametsa, baiña gutzat eziña, egorik ez daukagulako.

Ba, egaztiak aukere ori dauke eta udarako naiz negurako tokia aukeratu egiten dabe. Orretarako ibillaldi luzeak egiten dabez. Eta olako ibillaldi luzeak egin arren, ez dira galtzen, gu galduko gintzaken lez.

Gaur ondo dakigu txoriak nondik nora joaten diran:

– Elaia edo enara Afrika'ko Tropikora joaten da negurako eta udabarrian etorten da 20.000 km. eginda.

– Kurriloak urrillean batzen dira eta V itxurako taldeetan joaten dira.

– Ankaluze edo flamenkoak antzera batzen eta joaten dira.

– Zikonia edo armiarma udaren asieran joaten da eta sanblasetan etorri.

– Gure txoririk geienak neguan Afrika'ra joaten dira. Batzuk Lurrart-Itxasora be bai, beste batzuk berton ikusten doguz neguan otzez eta gosez, esaterako txepetxak eta belak.

Eta Ameriketarako txoriak nora?

Kanada ta Ipar-Ameriketan, lurra zati bat edurpean geratzen da eta txoriak otza dauke alde batetik, eta gosea lagun bestetik. Urten egin bear.

– Goglu'k: Kanada'tik agustuan urteten dau eta danak batzen dira Florida'n eta andik, zeruak eurak be illundu egiten dabezala, Kuba'ra, Jaimaika'ra eta Arjentina'ren goi-aldera doaz negutea igaroteko.

Eta orrelan beste txori askok be.

EGAZTIEN EGUTEGIA

Egaztiak ille bakoitxean euren zeregiña eukiten dabe, eta zeregin ori beteteko tokia be bai:

1) Urterillean: Gabontza asten da abesten eta eguzkitan zozoa be bai.

2) Zezeillean: Amillotxak asten dira abiak egiten.

3) Martian: Txinboak daukaguz kantari. Artatxoriak abiak egiten.

4) Aprillean: Ba-datoz negua kanpoan egin dabenak: kukuak, enarak, elaiak.

5) Maiatzean: Abiak egiten diardue.

6) Bagillean: Abiak egiten eta abestiak ugari.

7) Garagarrillean: Umeak urten dira arrautzetatik.

8) Agustuan: Elaiak ba-doaz negu-lekuetara.

9) Iraillean: Egaztien urteera bandaka.

10) Urrilla: Otzaldiak datoz eta aateak agiri dira etorten.

11) Zemendia: Zelaietan mikak eta oillagorrek agiri dira.

12) Abendua: Izadia lo dago, ate-ondoan dardar txantxangorria. Asko knapoan negutean.

ERAZTUNAK EGAZTIAI

Neguan kanpora doazen txoriai eraztuna ipinten dautsee ankan toki batzutan eta erantzunak be artzen dira udabarrian eta iñoz bide orretatik gizakien ezkontzaren bat be gertatu al izan da.

Plinio Zarrak orain 19 gizaldi au iñoan: Zaldi-lasterketen barria etxera ekarteko, enara bat izaten zala bide.

Olako mezuak ulertzeko kode bat dago laterri-artean.

Frantze'n urtero 150.000 txoriri ipinten jakez eraztunak. Laterri Batuetan eta Kanada'n 600.000'ri urtero. Guztiz orain-arte 12 milloiri ipiñi jakez eta 900.000 erantzun artu dira.

Oso ezagunak dira gudaldietan uso mezulariak, sarritan eta ondoren oanagaz erabilli dira. Orain irratia daukagu, baiña uso mezularia isillagoa da. Europa'ko II Gudan Ameriketarrak 36.000 uso erabilli ebezan.

Baiña euren aldian pertsiarrek, greziarrak eta erromatarrek be erabilli ebezan.

Gogoratu baiño ez Noe'k gertakizuna, bere kuxatik urten aurretik.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!